

# GEZUR-ECHE

---

**D**ONOSTIKO uri leñargia orma sendoz ingurutua zegon garai artan, ate nagusi edo *Kubo imperial* deitzen zan irte lekuaren inguruan aragi-arrapatzalleen etxola bat zegon.

Ondo adierazi detan ez dakit, bañan ba ez pada ere azalduko det orain *celadoresdearbitrios* deitzen diranak, orduan aragi-arrapatzalleak deitzen zirala.

Orain aña etzan, baña orain aña zer egin ere izan bear ez zuten. Beintzat egunak zituen ordu guzietan jolaserako lagunez betiak, aragi-arrapatzalleen echolak egoten ziran.

Zer egiñik ez zuten guziak ayetan biltzen ziran, eta ayetan geyena, asieran aiatatu degun sarrera nagusiko aurrean zegon echolan.

¡Zenbaterañoiko berriketak egiten ote zituzten toki artan! Aundiak eta ez egi-egiak, izan biar zuten *Gezur-eche* izena jarri ziotenian.

Izen orrekin, echola ura, donostiarrak ezagutzen zuten, *Gezur-eche* esanarekin bazekiten guztiak non zan.

Izan ere gezurra ta *zelebrekeriya* bazan anchen ugari, orduko gizonak ziotenez.

Abetako bati entzun nizkion makiñabat parragarrikeri, ta neronek gauza ayekin algara naikua egin izan det.

Ara ayetako bat, nik entzun nuen itz berakin. *Gezur-eche*ko gezur-zulo batek esana zan:

«¿Bai al dakizute zer gertatu zayon Ašišklo'ri Santa Mariya'ko eleizan?

Bada juan dek obenak aitortzera *ekonomo* gaztiaren gana, ta onek agindu zio *kredua* esateko.

Ašišklo'k berriz *salbia* besteik ez zekiyela.

Azkenian zenbat Jaungoiko diran galdetu ziok.

Eta Ašišklo'k, baba zarra baño latzago, ¡zazpi! erantzun ziok.

—¡Bañan, gizona!

—Bai bada; Aita, Semia ta Espiritu Santua: iru; iru *persona* ez berdiñak: sei; ta Jaungoiko bakarra: zazpi.

Ekonomo berria oso asarretu dek, esan zizkiok beriak eta bi, ta azkenian esan ziok.

—Garbai edo *penitentziyaz* iru *salbe* esan biar dituzu.

—¿Iru *salbe* nik esatia nola nai du? ¡Bat besterik ez dakit eta!»

Orrelako gezurrak esanaz egoten ziran *Gezur-echen* biltzen ziran gizonak, eta nork aundiyagoak bota beren griña guziya izaten zan.

Ara, lenguen antzeko, beste ateraldi bat,

Au atera zuena ere egiyarekin asarre samar egon biar zuen.

Onela zion:

«Altzo-goiko erretoriak sekulako sermoya egin dik juan dan igandian.

Zerua nolakua dan argi asko zabaldu dik erretore jaun arrek.

Ederra, alaya, apaña, atsegiña eta aundiz berriz ikaragarritzko aundiya.

Baseritar guziak, abua zabalik zioztikan alako gauza arrigarriak entzunaz.

Eta erretore jaunak ziokan:

—¿Nola adieraziko nizuteke nik ondo, zeruaren aunditasun neurrigabia?

¿Badakizute Donostiya nolakua dan? Bada, Donostiya bera baño aundiyagua da zerua.

—¡Motellak! esan zion baseritar kankallu batek bere aldameneko lagunari: Donostiya baño aundiyagoa izateko zer edo zer izan biarko dik orreatik.»

Donostiar gezur-zale ayei guziyai, ez zizayoten gaizki iduritzen beren erri ormaz esitutako ura aunditasun neurritzaz artzia.

Zer esango ote zuten ikusi bazuten gaurko eguneko Donostia, alde guzietara zabalitzen dijuan uri au; ayeke ezagutu zuten uria baño zazpi bider aundiagoa dan au.

Bañan ayen biyotzak asetzeko naikua zuten beren uri pollit, kabi alai ura; ta iñun izan liteken uri aundienekotzat zeukaten.

Gaurko eguneko donostiarrak baño geyago maite bai zuten.

Eta gezur eta abar orrela beren naitasuna azaltzen zuten.

Ara orain azkenerako, beste aterakai bat.

Beste gezur-zulo batek asmatua.

Era onetan:

«Santa Maria'ko organistari gaur Motriko'koak eskutitz bat idatzi zio.

Esaten zio, Santa Kruzetan emen izan zala ta emen entzun zuela abesti oso polit bat.

Abesti ori naiko lukela; zer izen duen ez dakiela ordia.

Bañan, nolabait ere adieraziko diola ondo gogoratzen dalako.

Asiera onela duela:

Tiriri, tiriri, tiriri  
Dron dron, dron dron, la, pon  
Larala, laralo, tarari  
Tururun, tururun, chin, pon.

¡Orain asma zak aškora!»

Eta orrelako gezurrak asmatuaz bizitzen ziran alai ta pozkiro *Gezurrechen* biltzen ziran donostiar zarrak.

A. DARRA

---

---